DATU OROKORRAK

Lurralde Historikoa: Bizkaia

Eskualdea: Durango

Epai barrutia: Durango

Hedadura: 4,32 km2

Kokapena: 43 ° 09' 13" I

1º 02' 50"E

Mugak: Iparraldean Durango, Hegoaldean Mañaria eta Ekialdean Abadiño.

Komunikabideak: Izurtza Bilbotik 31 kmtara dago. Errepidez, Durango eta Urkiola lotzen duen bideko 2. km.an.

Biztanleria: Batez ere, beheko inguruan, Durangotik Gasteizerako errepidearen alde bitan biltzen da biztanle kopuru handiena, gune txiki bat osatuz. Beste biztanle guneak Ortuzar, Etxano eta Bitaño auzoak dira.

Durangoko industriaren hurbiltasunak eta Izurtzan bertan eraikitako lantegiek nekazaritzaren gainbehera ekarri zuten, jarduera hau osagarri bihurtuz.

Izurtza udalerria Bizkaiko ibai handiena den Ibaizabal arroaren alboko ibar batean dago kokatuta, Saibi mendian jaiotzen den Mañarierrekak sortzen duen hego-ipar orientazioa duen haranean dago kokatuta.

Erreka honen parean Urkiolako mendatean barrena Durangaldea, Arabako lautada eta Gasteiz lotzen dituen errepidea doa.

Udal dermioak 4,32 m2ko zabalera du. Durangaldeko herririk txikiena da baina ez Bizkaikoa. Izurtzako lur eremua haitzez inguratuta dago. Hegoaldean, Abadiñoko udal dermioan, Untzillatx (941 m.) mendia dago, eta mendebaldean Mugarrako (969 m.) tontorreraino heltzen da Izurtza. Hego mendebaldean, gertu baina Diman, Arratia eta Durangaldea banatzen duen Leungana (1000 m.) mendi malkartsua. Ekialdean, Untzillatx baino iparralderago, Santikurutz tontorrak (403 m) Izurtza eta Abadiño bereizten ditu. Ibarraren iparraldean, Ibaizabalekin elkartzen den inguruan dagoen lautadan Durango hiria dago.

HISTORIA

X eta XI. mendeetan Mañarierrekaren ertzetan abeltzaintzan eta nekazaritzan ari ziren giza taldeak zeuden, inguruan desagertutako San Jurgi baselizan eta Erdoitzako Amaren baselizari erantsita zegoen aitzinako kanposantuko ormen artean aurkitu ziren hilobiek frogatzen duten bezala. Harlauza horietan ageri diren "in dei nomine" idazketek kristautasunaren lekukotza ematen digute. Hauei Durangaldeko beste toki batzuetan aurkitutakoak gehitu ahal dizkiegu.



Erdoitzako baseliza eta hilerria

Zehaztapenak:

- Erdi Aroko Izurtzako egoera bat dator garai hartan Europan izan zen biztanleriaren hazkunde demografikoarekin.

- Erdi Aroko biztanlego hau kristaua zen. Aditu batzuen ustez Bizkaian kristautasuna Mena ibarretik barrena Balmasedatik eta Urkiolako bidetik sartu zen

Hilobietako harrien agerpenak, gaur egungo baseliza aurreko eliza txikien ondoan jendeztatuko lurralde bat bazegoela agertzen du.

ONDAREA

Bariko San Nikolasen eliza:

Nabe bakarreko tenplu honek egurrezko koru adierazgarria du, oinetan batez ere zizelatua. Buru aldean dorrea, egurrez bilbatutakoa. Gotikoko eta Bizkundeko aztarnak erakusten duen elementua irizpidea da.

Iturritza historialariaren arabera XVI. mendearen lehenengo urteetan eraiki zen eliza, Izurtzako biztanleak Mañariko Andra Maria elizatik eta Tabirako Done Petritik banatu zirenean.

Bai elizaren sorrera, bai Izurtza elizate moduan "era ofizialean" agertzea Etxaburutarren leinuagaz lotuta dagoz, eta eurok izan ziren bertako baselizakoi oinetxe-patroiak eliza sortu baino lehenago.

XVI. mendean zehar burdinolaz bete zen Izurtza. Hazkuntza ekonomiko nabarmena ekarri eban horrek, eta ondorio moduan, elizateko demografiaren gehikuntza. Industriaren hazkuntzak eta biztanle kupurua handitzeak Elizari ordaindu beharreko harremanak handitu zituen.

Biztanleriaren hazkundearen ondorioz, txiki geratuko zan eliza eta handiagoa eregi beharra sortuko zan. Etxaburutarrek gauzaturiko kapitalaren metaketari esker egin ahal izan zen hori. XVI. mendearen hasierako ekin jakon eliza barria eraikitzeko beharrei.

1535. urte aldera egina, gotiko-berpizkundeko atarien eredu bikaina dugu, dobela handiakaz, leiho-isurkiagaz eta ondo moldaturiko horman.

XVII. mendearen erdialdean, gaur egun ikusi dezakegun itxura eman eutsien lanak burutu ziran Izurtzako elizan.

Eraikinean erabilitako harlandu eta harri-hormak bertako harrobietatik lortu ziren eta errekarriak bereziki Mañarierrekatik.

Honako irudi hauek aurkituko ditugu elizan:

- Errukienaren Irudia Beaugrantarren tailerrean egina.

- Ohol margotu bi Magdalenaren eta Done Joane Ebanjelariaren irudiakaz XVI. mendearen bigarren erdiko hasierako manieristak dira.

- Gainean, nahiko txarto, Done Joane Ebanjelariaren eta San Bartolomeren irudi erromanistak margotu ziran .

Erretaula nagusia:

1745ean egina, ez dakigu noren lana dan. XVIII mendekoa izanik gogoratu behar da mende honen garrantzi ekonomikoa berezia izan zela Izurtzan.

Churrigeresco erako erretaula barrokoa du, eta rococora hurbilarazten daben ezaugarriak daukaz.

Rococoa aukeratu zan. Honela, arrokaila dago zutabeetan. Kartelak erdiko erregistroan, alboetako hegotzarrak lorakaz eta arrokailadun ispilua, eta era naturalistan landuriko loreontziak eta modiloiak.

San Nikolasen irudia:

Atzera aprobetxaturiko irudia da, XVII. mendearen lehenengo erdikoa. Erretaularen erdian dago, zutunik, bera da, parrokiari izena ematen deutson santua.

Beaugrant-arren tailerretik XVI. mendearen erdialdean.

San Jose Umeagaz:

Irudi barrokoa da, eta seguruenik erretaula egin zen garai berekoa da.

Gurutzea:

Atikoan dago, Mazoneriaren garaikoa da, 1745 urtearen ingurukoa.

Purgatorioko Arima Bedeinkatuen Erretaulea:

Lan honen sustatzailea be ezezaguna da. 1732ean egina da, Izurtzak susperraldi ekonomikoa bizi izan zuen ebaia mendeetan. Izurtzako herri xume batean harrigarri suertatzen bada be, Juan Vicente de Riberaren mihise bat be badago erretaulan.

Erretaula barrokoa da eta, aurrekoaren moduan, estilo churrigereskoa dauka.

Purgatorioko Arimen Olio-pintura, 1732koa, beheko eskuinaldean Juan Vicente de Riberaren sinadura duena.

Erdoitzako Baseliza:

HE-IMra begira dago, eta gain txiki batean. Bitaño auzora doan errepidearen ertzean, eskumaldean, parrokiatik 500 bat metrora. Herritarrek, egun, Erdoitzako Ama Birjina esaten diote eta bertako jaia irailaren 8an ospatzen da, Andra Mariaren egunean.

Errektangelu erako nabea daukan eraikina da, Teilatua lau uretara dago. Bere aurreko fatxada hiru bao ela ateburutan zabalduta dago, beraien moldeekin. Kanpai-ormak gorputz eta bao bakarra du. Barrua harri-hormaz eginda dago.

Sarreraren ondoan ur bedeinkatu harraska gailoidun bi dagoz.

Hilerria baseliza honi atxikita dago, eta ezaugarri izan daiteken elementu triangelu erako frontoi hutsa buru daukien harrizko pilastra bik eraturiko sarrera.

Erretaula nagusia

1620 eta 1625 urteen artean egin zen, Bizkaiko lan barrokoaren lan aintzaindarien artean dago sailkatuta.

Atikoko koadroa XX mendekoa da. Enrique Renteria margolariak egina. Kristo erakusten deusku gurutzean, eta atzeko aldean Durangaldeko paisaia.

San Tomas baseliza eta parkea

Mañariaerrekaren ondoan dagoen parkeak umeentzako jolasgunea, harrizko erretokiak eta egurrezko mahaiak ditu.



San Tomas baseliza

San Tomas baseliza:

HE-IM da daukan orientazioa, eta Elexalde izeneko auzoan dago kokaturik. leku isolatu baten.

Errektangulu erako nabe bakuna da, barrutik harri-hormaz egina dago eta teilatua lau uretara dauka.

Aurrealdean sarrera eta zabalgune handi bat egurrezko hesiekin eginda. Kanpoan kanpai-horma neoklasikoa gorputz. bakarrekoa eta baoaren azpian ur bedeinkatu aska agertzen da.

Agate Deunaren Baseliza eta parkea:

Basoko parke honetan harrizko mahaia, erretokiak eta iturria aurkitu genezake, Bitañoko bidetik heltzen da bertara

Agate Deunaren baseliza

Mendigain izeneko mendiaren gainean dago kokatuta. Lexartza auzoan 302 metroko altueran dago itsasoaren gainetik, eta E-Mkoa da orientazioa.

Nabe bakar sakona duen tenplu hau harri-hormaz eginda dago eta teilatua bi uretara, urak fatxada luzeenetara jausten direlarik. Barrua zutabekin indartuta dago.

Horma harri xehez eginda dago eraikina. Baseliza herrikoien tipologiaren araberakoa da baseliza hau eta ez dago kronologikoki justifikatzen duen formako elementurik.

Baselizaren barruko aldean dagoen irudi bakarra izena ematen deutson sainduarena da, modernoa eta mentsula baten gainean dago. Antzinagoko irudia parrokian dago. Zur polikromatuzko irudi gotikoa da.



Urezandi baserria

XVI. MENDEKO BASERRI GOTIKO-BIZKUNDEKOA

Estilo horretako hainbat adibide dagoz Izurtzan: Aurtenetxe edo Mationa baserria, Bitaño auzunean, Urezandi baserria Elexalden eta Beiti baserria Atxondon.

Aurtenetxe baserria: Etartean lehenengo solairuko pisuari eusteko lagungarri suertatzen dan zutabe toskanarra dago. Oso sakona da, eta horregatik, egurrezko beste zutabe gehigarri bat behar dau erdian.

Ganbara, egurraz itxia egon beharrean, edegia da.

XVII eta XVIII. MENDEETAKO BASERRIAK: HORMA PORTANTEAK ETA ERLAIZPEDUN ATARIA DUTENAK.

Palazio eta Zabala baserria: Montevideoko sortzaile izan zen Bruno Mauricio de Zabalaren aitarena zan baserri hau.

Bolumen handiko baserria, beheko solairua harri-hormaz eginda dago eta gainekoetan trikotea eta zura bilbaturik daude.

Aurreko aldean armarria dauka, eraikina baino modernoagoa. Banatuta dago eta gurutze-lore elisatua eta erdian txebroia dutela, triangeluan eraturiko hiru txirla daukaz. Aspa tankerako odak ere badaukaz.

Estilo honetako eraikina Ortuzar auzoko Jaioena baserri da ere.

Jaioena baserria: Harri-hormaz eginda dago beheko solairua eta gainekoak harri-horma eta trikotekin bilbatuta daude.

XIX. MENDEKO ARKUPEDUN BASERRIA.

Elemento kultuen eta herrikoien arteko fusioa ekarri eban, eta ganean eregiteko sendotasunean asko irabazi izana izan zan ekarri eban abantaila nagusia.

Gauza bitxia bada be, Mañarian gertatzen zanaren kontra, oso gutxitan ematen den baserri-mota dogu berau Izurtzan.

Mendibekoa baserria: Arkudun baserrien adibide xumea dugu berau. Ortuzar izeneko auzoan dago.

BASERRI KUBIKOA

Txakolina baserria: eredu honen adibide egokia dogu baserri hau. Eraikin funtzionala izaten da, eta normalean ez dau etarterik izaten. Apainketak neurridunak dira oso, eta tradiziozko etxe neoklasikoa gomutatuarazoten deusku. Hormak harri-hormaz dagoz eginda, silarriak izkinetan eta ia beti burudunak diren baoetan baino erabiltzen ez diralarik. Baserri mota honek, bere kubo-tankeragaz, altuera eta bolumen bikainak atzematen ditu. Hori honela, baserri-etxea izateaz gain, ostatu, denda edota taberna moduan be erabili ahal izaten zen eta, alerik bikainenak, berriz, jende gorenaren bizileku moduan.

Izenak argitzen duen bezala, bertan saltzen zen Izurtzako Bekotorre atzealdean zeuden mahastien produktua

ETXEBIZITZA ARKITEKTURA KULTUA: JAUREGIAK:

Aranatarren jauregia

XIX mendeko jauregia da, zehatzago esateko 1852. urtekoa, bertan inskribaturik dagoen aipuan esaten den moduan, lehenagoko Jauregi baten hondarren gainean eraiki zen, elizako patroia zen Juan Ramon Aranak sustatuta.

Frantziar tankerako eraikina da, handia eta solairu bi eta txapitulaturiko atikoa, azken hori beste bietatik argiro berezituta dago elaitz baten bidez.

Bere buelta osoan lorategia dauka etxe honek eta han arbola itzelak.

Frantses tipoko eraikina da, handia, bi solairu eta txapitula erako atikoa duena, Erlaitz batek argi uzten ditu haien bereizketa.

Oin laukidun eraikin eklektiko hau harri landuz eginda dago, bere fatxada nagusian hiru altuera bereizten dira bost baoen ardatz, erdikoan sarrera nagusia zabaltzen da, zutabeko karrerape batek babestuta. Etxaburu-Ibarguen eta Basozabal familien ezkutu barrokoa dauka San Nikolas elizan dagoenaren berdina.

Larrinagatarren jauregia

XIX mendeko eraikina da, baina hainbat biderrez aldatu eta berriztua. Altua da, kubo tankerakoa, eta hiru solairutan dago banatuta. Hormak harri-hormaz dagoz eginda, harlandu bikainez eginda dauden izkinetakoak eta baoen inguruetakoak izan ezik.

Atzeko aldean nabarmentzen da eraikineko elementutik garrantzizkoena, lehenengo solairua ibaira ematen dauen aldeagaz bat egiten dauan harrizko harmaila.

Arana jauregia edo Bodega baserria

Aranatarrena zen eta herrikoak "Bodega" izenaz ezagutzen dute, oraindik be bertan mantentzen delako bodega eta sasoi hartako tradizioko baserriakaz erkatuta alde handirik ez dagoelako. Juan Ramon de Aranak eregia izan zen bertan aurkitu den inskripzioagatik.

XIX. mendeko baserrietan aurkitu ohi dan egituraren antzekoa dauka beronek be. Eraikuntza neoklasikoa, kubo erakoa, harri-horma xehez, harri zabalekaz, eginiko hormakaz. Harlanduek baoen definiziorako eta izkinetarako erreserbatu ziran.

ARKITEKTURA MILITARRA: DORRETXEAK

Etxaburuko Dorretxea: Mañaria ibaian amaitzen dan errekasto batek zeharkatzen dauan bailara txiki baten dago. Etxaburuko dorretxea, gaur egun Urkiolaraino doan errepidetik kilometro batera. Haitz baten gainean dago defentsa errazte aldera eta inguruetako lurren gaineko ikuspegia zabala izateko.

Laburrago esateko. oso leku estrategikoan eregi zuten eta baliteke Erdi Aroan Urkiolara joian bidea bertatik hur pasatzea. Honela, talaia eta lurraldeko kontrolerako eta defentsarako eraikina izango zen horregaz batera. Bizkaiko dorre gehienen modura, inguruetako zelula ekonomikoarena be egingo eban, salgaien trafikoa eta Izurtzako zelaiak eta kortabasoak kontrolatuz.

Elezaharrak alde batera utzita, ezagutzen dugun albisterik aintzinakoena 1456. urtekoa da.

Errektangulu erako oin-planoa dauka. eta Bizkaiko dorretxeetan ohikoa izaten dena baino nahikoa altuera handiagoa. Hiru solairutan dago bananduta gorputza, etxabea, bizitzeko solairua eta ganbara eta dorreari ere altuera handiagoa hartzen uzten eta oinarri sendo eta egonkorra emaoten deutson haitz baten gainean dago zumendaturik.

Izurtzako dorrea: Torre honi Aldanatorrea be esaten zaio, eta Mañarierrekaren bidea hartzen du bere mende, bertatik hurbil dagoen muino baten gainean dago eta.

Dorre kubikoa da eta Etxaburukoa baino askoz altuera txikiagokoa. Hau be hiru solairutan dago bananduta, behekoa. lehenengoa eta ganbara eta horren isla igartzen da kanpoan dagozan baoei esker.

Etxaburutorrea baino erosoagoa eta bizigarriagoa da eta bertara joan ziren bizitzen Izurtzako ugazabak.



Izurtzako dorrea (Bekotorre)

ZERBITZU-ARKITEKTURA ETA INDUSTRIA AURREKO ARKITEKTURA

Goitiko iturria: Artisautza iturria da, tankera kultuan egina l855ean. Pantailako edo arkitekturra aurrealdeko iturrien tipologiaren barruan sartu liteke. Aurrealde etzuna erakusten deusku, oso bikaina batere apaingarririk gabe, pilastra bi eta gaineko frontoia izan ezik. Ontzia bertan ixteko aukera ematen duen apal baten gainera isurtzen du ura, eta dan-dana dago berriz eginda.

Untzillako iturria : Izurtzako hirigunean dagoen iturria dugu beste hau, plaza nagusian, harriz eginda dago. plaza eta errepidea banatzen dituen horma txiki baten amaieran. Eskulturgintzari buruz jardun ezkero. itxura bitxia daukala esan beharko da, hiruki tankerakoa delarik, puntan amaitu barik. frontoi biribil txiki baten amaitzen delako. Bertan, hilarria balitz legez, lore antzeko apaingarria dago eta beronen erditik irteten da ura. Ura jausten daneko pilastrak guztiz inguratzen dau deskribaturiko egitura.

Desmonteko iturria: Gasteizera doan errepide ondoan dago, Desmonte aurkintzan, iturria eta uraska daude, Durangotik Gasteizera zihoazen bidaiari eta animaliek erabiltzen zutena.



Desmonteko iturria

LEXARTZAKO BURDINOLEA ETA ERROTEA

Lexartzan antzina zeuden burdinolak eta errotak, nahiz eta lehenengo lekukotza dokumentalak XVI. mendekoak izan. Iragan bikaina gogora ekartzen deuskuen instalazio batzuk geratzen dira gaur egun ere:

Haguna: Mañarierrekako ura presatik bideratzen duen ubidea.

Antapara: ura biltzen duen gunea.

Tunel hidraulikoa: anteparan dagoen urari indarra ematen dion zatia.

Garrantzi handiko industriaurreko instalazioa da, nahiz eta azken mendean errota legez baino ez den ezagutu, hori izan delako bere funtzio modernoa. Burdina lantzen zuten instalazio asko errota bihurtu ziren irauItza industrialak ekarritako gainbeheraren ondorioz. Irina lortzeko behar ziren errotak asko burdinolak izan ziren lehenago.

Errotabarri: Gutxienez XVII. mendetik daukaguz Errotabarriko berriak, errepidearen ondoan eta errekaren ezkerraldean dagoena. Dagokion eraikina desagertua dago. Errota gehienetan ikusten denez Errotabarrin ere errekako uren indarrek eragindako kalteak sumatzen dira. Arkua kontutan izanik hau instalazio indartsua izan zen.

Herriko frontoia, Tresnaduna deritzona, 14 lauki ditu eta, Bizkaiko handienetako bat da. Azken urteetan hobekuntza lanak egin dira: lehenengo estalkia eta aldagelak, 2013an atzeko zati bat itxi zen eta 2014an saneatu, egitura margotu eta guztiz itxi da.

Elizondoko parkea: Bariko San Nikolas elizaren ondoan, iturri bikoitza du, egurrezko bankuak harri gainean eta hezkaidun lore-askak.

Abadetxeko parkea: Abadetxe eta Urezandiko bidearen ondoan, 5 gimnasia aparatu daude eta modulo bat (umeentzako jolasgunea, 4 egurrezko banku eta 1 harrizkoa).

Urezandiko presa: Urezanditik Santo Tomasera doan bide ondoan, leku aproposa da Mañaria errekan bainatzeko.

Biberoko iturria: 2014an berreraiki da, egurrezko mahai borobila harriaren gainean, harrizko 2 banku eta zutabe bat, edateko ur iturri bat eta laukizuzen formako putzua. Leku aproposa da Santa Agedako bidean geraldi bat egiteko.

Biberoko ur putzua: 2013an harrian berreraiki dira berau eta Santa Agedako bidetik doazen eskailerak ere,



Urezandiko presa

PERTSONA OSPETSUAK

Nicolas Alzola Gerediaga: Euskal idazlea, (Izurtza 1922- Irun 1983). La Salleko anaia, erlijioan Berrio-otxoako Balendin izena hartu zuen. Euskaltzain urgazlea (1957). Erreseina bibliografiko eta biografikoetan espezializatua. Goitizen ugari erabili zuen. hala nola, "N de Cortazar", "Bitaño", "Markue", "Ozerin jauregi", "Atxarte" etab. Langile porrokatua, bere garaiko euskal aldizkari guztietan argitaratu zuen, hitz lauz eta bertsoz, "Egan"go lanak nabarmentzekoak direlarik. Erdaraz ere agerkari anitzetan esku hartu zuen: "La Gran Enciclopedia Vasca", Madrilgo "Tradiciones populares", Bartzelonako "Indice Histórico Español", Gotingako "Fabula", "Boletín de la RES de Amigos del País" etab. 1966 an" Cien autores vascos" obra argitaratu zuen. 1967an "Atalak"•eman zuen argitara, eta haren ondoan "Bigarren Atalak" (1972) eta "Hirugarren Atalak" 1978an.

Nicolas Alzola pintorea ere bazen, akuarelagile ona zen. "Fauve" joerako akuarelagintza egin zuen, aski puntillista, dibujoaren erritmoa ondo eroanaz. Paisaje argiak, alaiak eta anekdotikoak. Margo hutsak ere oso onak, batez ere zuhaitzak beren mugimendu urduriak egiten zituenean.



Etxaburutorre



Lexartza burdinola



Elizondoko parkea



Biberoko putzua



DATOS GENERALES

Territorio histórico: Bizkaia

Comarca: Durago

Partido judicial: Durango

Superficie: 4,32 km2

Situación: 43° 09' 13" I

1º 02' 50"E

Limites*: Al Norte con Durango, al Sur con Mañaria y al Este con Abadiño.*

Comunicaciones*: Izurtza se encuentra a 31 km. de Bilbao. Por carretera, encontrará este municipio en la que une Durango con Urkiola en su kilómetro 2.*

Población*: Se concentra principalmente en las zonas bajas, a ambos lados de la carretera de Durango a Vitoria- Gasteiz, forrnando un pequeno núcleo, el resto se halla disperso forrnando pequeños barrios como Bitaño, Lexartza, Etxano y Ortuzar.*

La cercanía de un núcleo industrial como Durango y la instalación de algunas industrias en el mismo Izurtza, han propiciado el abandono de una economia eminentemente rural, por el trabajo en las instalaciones industriales

El municipio de Izurtza está situado en un valle lateral de la cuenca alta del Ibaizabal, el gran río de Bizkaia. A través de este valle profundo, discurre lentamente, de Sur a Norte, el río Mañarierreka que nace en las laderas del monte Saibi. Paralelo a este río corre la única carretera que, a través del puerto de Urkiola, comunica la Villa de Durango y la comarca del Duranguesado con la meseta alavesa y la ciudad de Vitoria / Gasteiz.

Con una extensión de 4,32 Km2. Izurtza es el munipio más reducido del Duranguesado, pero no es el más pequeño de Bizkaia.

El territorio de Izurtza está asentado en un corto valle cerrado al Este por la peña de Untzillatx (941 m), en término del vecino municipio de Mañaria, y flanqueando al W. por el esbelto pico calcáreo de Mugarra (969 m) y más al sur las estribaciones del Leungana (1000 m) ya en Dima, que separa el Duranguesado de Arratia. Al noroeste el monte Santikurutz (403 m) separa Izurtza del municipio contiguo de Abadiño. Al Norte del valle se abre una planicie ribereña del río Ibaizabal, donde se sitúa la Villa Durango

HISTORIA

Durante los siglos X y XI ya se asentaba una importante población en las riberas del rio Mañarierreka dedicada fundamentalmente a la ganadería y a la agricultura. La existencia de una serie de lápidas sepulcrales encontradas con la inscripción "In dei nomine" junto a la desaparecida ermita de San Jurgi (San Jorge), y formando parte de las paredes del antiguo cementerio adosado a la ermita de Nuestra Señora de Erdoitza así lo demuestran. Además guardan relación con otras encontradas en diferentes lugares del Duranguesado.

Características:

- Población amplia concordante con el crecimiento demográfico que experimenta Europa.

- Se trata de gente cristianizada. Los investigadores han considerado que la entrada del Cristianismo en Bizkaia se hizo a través del valle de Mena y el Camino de Urkiola hacia el Duranguesado.

La aparición de lápidas impulsa a creer en un territorio alrededor de pequeñas iglesias, precedentes de las actuales ermitas.

PATRIMONIO

Iglesia de San Nicolás

Templo de una sola nave con un destacable coro sito en madera, decorado con abundantes tallas, a los pies. A la cabecera se alza una torre interiormente sustentada a base de un rígido entramado de madera. Conserva algunos restos góticos y renacentistas entre los que destaca el acceso.

Según Iturritza su fundación es de los primeros años del siglo XVI con feligreses separados de Andra Mari de Mañaria y San Pedro de Tabira, y está vinculada al linaje de los Etxaburu



San Nikolas elizako ataria

Durante el siglo XVI Izurtza se pobló de ferrerías lo que supuso un evidente crecimiento económico y un aumento demográfico y a su vez conllevó un incremento de los diezmos, además de fomentar la industria relacionada con el hierro. Este crecimiento demográfico debió dejar pequeño el templo por lo que los Etxaburu decidieron que se comenzaran las obras de ampliación. Hecha en 1535 se trata de un buen ejemplo de portada gótico-renacentista de gran bovedaje, con vierteaguas y enclavada en un muro bien aparejado, pero su origen habría que trasladarlo varios años atrás. A principios del XVI este edificio fue derruido y se llevó a cabo la construcción de uno nuevo.

A mediados del siglo XVII se llevaron a cabo las obras que dieron a la iglesia un aspecto prácticamente igual al que observamos hoy en día.

En el edificio se utilizan tanto la sillería como el mampuesto compuesto por piedras obtenidas de las canteras del lugar y especialmente, de los cantos rodados del rio Mañarierreka.

Dentro de la iglesia encontramos las siguientes imágenes:

- Imagen de La Piedad, salida del taller de los Beaugrant.

- Dos tablas pintadas con las efigies de la Magdalena y San Juan Evangelista de la primera mitad del siglo XVI.

- Las figuras romanistas de San Juan Evangelista y la de San Bartolomé.

- La figura gótica de Santa Agueda.

El retablo mayor: construido en 1745 se desconoce su autor. Enclavado dentro del siglo XVIII. Símbolo de la especial relevancia económica de la época. Es un retablo barroco de tipo churrigueresco aunque con connotaciones que lo acercan al rococó.

Se decanta por la del rococó, con rocalla en la columnas. cartelas en el registro central, aletones laterales con flores y espejo de rocalla y jarrones y modillones de tratamiento naturalista.

La imagen de San Nicolás es una pieza aprovechada de la primera mitad del siglo XVII. Está situada de pie en el centro del retablo, como santo titular de la parroquia.

La figura de San José con el Niño es una figura barroca esculpida con toda seguridad en la época del retablo.

El crucifijo situado en el ático, es de la época de la masonería, hasta 1745.

Retablo de las benditas ánimas del purgatorio, obra también anónima de 1732, exponente de la recuperación económica de Izurtza durante este siglo, incluye un lienzo del pintor Juan Vicente de Ribera, algo inusual en un pueblo tan modesto como Izurtza. Retablo barroco de estilo churrigueresco.

Oleo de las Animas del Purgatorio fechado en 1732 y firmado por Juan Vicente Ribera en el margen inferior derecho.

Ermita de Nuestra Señora de Erdoitza:

La ermita de Erdoitza, conocida como Erdoitzako Ama Birjina, está orientada al SE-NW y situada en un pequeño alto a mano derecha del borde la carretera que nos conduce al Barrio de Bitaño, a 500 metros de la Parroquia. Su fiesta se celebra el día 8 de septiembre, Natividad de la Virgen maría.

Ermita de planta prolongada por un ábside rectangular y cubierta con tejado a cuatro aguas. Su cara delantera se abre en tres vanos y adentelados, moldurados en orejera. Cuenta con espadaña neoclásica de un suelo cuerpo y vano y el interior es de mampostería.

Junto a la entrada hay dos pilas de agua bendita gallonada.

El cementerio está adosado a esta ermita, como elemento característico tiene una entrada compuesta por dos pilastras de piedra coronadas por un frontón triangular hueco.

El retablo mayor construido entre 1620 y 1625, se considera una de las obras pioneras del barroco de Bizkaia.

El cuadro del ático es del siglo XX, del pintor Enrique Rentería, Representa a Cristo en la cruz ante un fondo paisajístico del Duranguesado.

ERMITA Y PARQUE DE SANTO TOMAS:

Parque junto al río Mañarierreka, con juegos infantiles, asadores de piedra y mesas de madera

Ermita de Santo Tomás:

Tiene una orientación SE-NW y está emplazada en el barrio Elexalde.

Templo de una sola agua cuadrangular, aparejada en mampuesto y cubierto con tejado a cuatro aguas. A los pies se abre el acceso y un amplio hueco cerrado por tramones verticales de madera. En el exterior de la espadaña neoclásica de un solo cuerpo y bajo el vano aparece una pila de agua bendita.

ERMITA Y PARQUE DE SANTA AGUEDA:

Parque de monte, con mesas de piedra, asador y fuente, con acceso desde el barrio de Bitaño.

Ermita de Santa Agueda:

Está situada en la loma del monte Mendigain, en el barrio de Ortuzar. Se halla a una altura de 302 metros sobre el nivel del mar y con orientación E-W.

Templo de una sola nave de planta profunda aparejado en mampuesto y cubierto por tejado a dos aguas vertiendo hacia las fachadas más largas. El interior se refuerza mediante varios contrafuertes.



Agate deunaren baseliza eta parkea

Esta ermita responde a una tipología de ermita popular, sin que haya ningún elemento formal que justifique una apreciación cronológica.

La única imagen que hay en el interior es la de Santa Águeda moderna, sobre una repisa. La primitiva imagen se halla en la Parroquia y es una imagen de madera policromada gótica.

EL CASERIO GOTICO RENACENTISTA DEL SIGLO XVI

Existen varios caseríos de este tipo en Izurtza: Aurtenetxe o Mationa en el barrio Bitaño, Urezandi en el barrio Elexalde y el caserío Beti en Atxondo.

Caserío Aurtenetxe*: La carrera del soportal apea sobre columna toscana que ayuda a sostener el peso del primer piso. Es además, muy profundo, por lo que necesita un poste de madera adicional en medio. La ganbara o camarote no está cerrada por madera o piedra, sino que es abierta.*



Aurtenetxe baserria

EL CASERIO DE MUROS PORTANTES Y SOPORTAL ARQUITRABADO DE LOS SIGLOS XVII Y XVIII.

Palacio*: Esta casa perteneció a Nicolás Ibañez de Zabala, padre de Bruno Mauricio de Zabala, fundador de Montevideo. Caserío de gran volumen aparejado en mampuesto en su planta baja y a base de entramado de madera relleno de ladrillo macizo en las superiores. Luce escudo barroco de la familia Zabala. más moderno que el edificio, partido de cruz, flor elisada y de tres veneras dispuestas en triángulo chevrón. Lleva además, orla de aspas. De este estilo de construcción es también el caserío Jaioena del Barrio Ortuzar.*

Caserío Jaioena: *Caserío propio de Bizkaia que presenta su planta interior aparejada a base de mampuesto, mientras las superiores lo hacen mediante entramado relleno de mampostería y ladrillo macizo.*

EL CASERIO DE ARCADA DEL SIGLO XIX.

Supone una fusión entre lo culto y lo popular y la gran ventaja que presenta es que gana en solidez para construir encima.

Caserío Mendibekoa: *Situado en el barrio Ortuzar. Aunque sea un caserío poco frecuente en Izurtza, a poca distancia, pero en el municipio de Mañaria se observan más ejemplares de este tipo de caserío.*

EL CASERIO CUBICO

Caserío Txakolina: *representa al caserío cúbico. Es un edificio funcional que prescinde generalmente de soportal, parco en decoración y que recuerda mucho a la casa neoclásica tradicional. Los muros son de mampuesto utilizándose los sillares únicamente en los esquinales y en los vanos ,que son prácticamente siempre adintelados. Este caserío con su forma cúbica consigue alcanzar alturas y volúmenes notables.*



Txakolina baserria

Esto le permite no solo ser utilizado como casa de labranza sino también como venta, posada, taberna y en sus mejores modelos como residencia de gente notable. En este caso era el lugar donde se vendía el producto de las viñas del solar de Arana, situado detrás de la Torre de Izurtza.

ARQUITECTURA RESIDENCIAL CULTA - LOS PALACIOS

Palacio Arana*: Es un palacio del siglo XIX, exactamente del año 1852, como aparece en su inscripción. Se construyó sobre los restos de otro palacio y fue promovido por Juan Ramón de Arana.*

Es un edificio de tipo francés, grande, de dos plantas más un ático abuardillado que está claramente diferenciado de aquellas dos por una cornisa.

Edificio ecléctico de planta cuadrangular aparejado en sillería, cuya fachada principal presenta tres alturas superadas por impostes en las que se ordenan cinco ejes de vanos: en el central se abre el acceso principal, protegido por un porche sobre columnas. Luce un escudo barroco de las familias Echaburu-Ibargüen y Basozabal gemelo al conservado en la Iglesia de San Nicolás.



Bitañojauregia

Cuenta con un interesante jardín en su entorno que contiene árboles gigantescos.

Villa Eliza-Etxe o Palacio Viejo:

Es un edificio del siglo XIX que ha sufrido diversas reformas y reconstrucciones. Es alto, de tipo cúbico y se divide en tres plantas. Los muros son de mampostería a excepción de los esquinales y la definición de los vanos que es de excelente sillería.

Villa en cuyo jardín se conserva• un escudo inédito en gusto barroco. En la parte trasera destaca el elemento más importante del edificio: una escalinata de piedra que comunica el primer piso con la zona que da al río.

Bodega neoclásica:

Perteneciente también a los Arana de la época es conocido como "caserío Bodega" porque todavía se conserva su bodega y por tener un aspecto que no se diferencia excesivamente de un caserío tradicional de esta etapa. Fue construido por el Patrono de la anteiglesia Juan Ramón de Arana en 1846 como reza en la inscripción que en él encontramos.

Presenta una estructura similar a la de los caseríos tradicionales del siglo XIX, Una construcción neoclásica, de aspecto cúbico, cuyos muros son de mampuesto menudo, de tipo de lajas, reservándose los sillares en la definición de los vanos y en las esquinas.

ARQUITECTURA MILITAR: LAS CASAS TORRE

Torre de Etxaburu:

La torre Etxaburu esta asentada en un pequeño valle por el que discurre un regato que desemboca en el rio Mañarierreka, alejada un kilómetro de la actual carretera que sube hasta Urkiola. Se asienta, además, sobre una roca, lo que permite una mejor defensa y una mejor panorámica sobre el territorio circundante. Es muy probable que el camino medieval que se dirigía a Urkiola pasase junto a ella. Se trataría de una torre que intentaría conjuntar su función de atalaya, de edificio controlador y defensivo del territorio.

Como la mayoría de las torres de Bizkaia actuaba como célula económica de su alrededor controlando el tráfico de mercancías y los prados y heredades de Izurtza. La noticia más antigua que conocemos leyendas aparte es de 1456.

Posee una planta de forma rectangular y una altura bastante superior a lo que es tradicional. Su cuerpo se divide en tres plantas, el sótano, el piso residencial y la ganbara o camarote, y está cimentada sobre un roquedo que permite a la torre alcanzar una altura aún mayor y mantener una base sólida y estable.

Torre de Izurtza o Bekotorre:

Esta torre también denominada de Aldana, domina el curso del río Mañarierreka asentándose sobre una pequeña loma cercana a él.

Casa-Torre de volumen cúbico, se divide tambien en tres plantas; baja, primera y ganbara, que al exterior se aprecian por los vanos existentes. En sus tiempos fue un edificio noble, un palacio más cómodo y habitable que la torre de Etxaburu, al que se trasladarían los patronos de Izurtza.

ARQUITECTURA DE SERVICIOS Y LA ARQUITECTURA INDUSTRIAL

Fuente de Goiti: *Es una fuente artesanal de carácter construida en 1855. Entra dentro de la tipología de fuentes en pantalla o de frente arquitectónico. Presenta un frente apaisado, muy simple, sin ninguna decoración excepto por dos pilastras de referencia, y un frontón encima. Vierte sobre una repisa que permite posar los recipientes y está realizada íntegramente en piedra.*

Fuente de Untzilla: *Situada en el Casco Urbano de Izurtza. Está realizada en piedra, situándose al final de un pequeño muro que separa la plaza de la carretera. Escultóricamente hablando tiene un aspecto peculiar ya que es triangular pero en vez de acabar en punta lo hace en un pequeño frontón circular. En él, como si fuese una estela, aparece una decoración en forma de flor en medio de la cual surge el chorro de agua. La pilastra en donde cae el agua, rodea totalmente a esta estructura.*

Fuente de Desmonte: *Situada junto a la carretera de Vitoria- Gasteiz, en la zona de Desmonte, consta de una fuente con su abrevadero que era utilizado por los viajeros y animales que realizaban la ruta de Durango a Vitoria.*

Ferrería Errota

De la antigua ferrería y molino de Lexartza, documentada desde el siglo XVI quedan los siguientes restos:

•El cauce: era simplemente un cauce que recogía las aguas del rio Mañarierreka y las dirigía hacia la ferrería.

-La antépara: donde desemboca el cauce

•El túnel hidráulico: se aprecian los arcos de medio punto para la inserción de los ejes de las turbinas y otro más utilizado como aliviadero del agua del río.

Es una instalación preindustrial de mucho interés. No se le conoce como tal, sino como molino, que ha sido su más moderna función, hacia lo que derivaron muchas de las instalaciones que manipulaban el hierro cuando sobrevino la revolución industrial. La obtención de la harina requería molinos que aprovechan la energía hidráulica y que en muchos casos origen fueron ferrerías.

Al menos desde el siglo XVII se cita el molino Errotabarri que está junto a la carretera y sobre el río por la orilla izquierda. El edificio que lo albergó no existe en la actualidad. Como en la mayoría de los molinos, en el de Errobarri se aprecian los desastres de viejas y modernas avenidas de aguas por el río. Por el arco, debió de ser una instalación muy capaz.

Frontón municipal*: Llamado de herramienta, con 14 cuadros, es uno de los frontones mayores de Bizkaia. Se han realizado varias obras de mejora en los últimos años, primero la cubierta y los vestuarios, en 2013 cierre parcial trasero y en 2014, saneado, pintado estructura y cierre total.*

Parque Elizondo: *junto a la Iglesia de San Nicolás de Bari, con Fuente doble con escultura, bancos de madera sobre piedra y jardineras con setos.*

Parque Abadetxe*: Junto a la casa cural y camino Urezandi, con 5 aparatos de gimnasia, módulo (juegos infantiles, 4 bancos madera y 1 de piedra).*



Abadetxeko parkea

Presa de Urezandi*: Situado junto al paseo de Urezandi al parque de Santo Tomás, lugal ideal para darse baños en el Río Mañaria.*

Fuente de Vivero: *reconstruido en 2014, con mesa redonda tablada en piedra, 2 bancos y 1 columna también de piedra, así como fuente de agua potable y pozo rectangular. Lugar ideal para hacer un alto en el camino a Santa Águeda.*

Pozo de agua de Vivero: *Reconstruido en 2013, en piedra así como la escalera de acceso desde el camino a Santa Águeda.*

PERSONAJES ILUSTRES

Nicolás Alzola Gerediaga*. Escritor vasco (Izurtza 1922-Irún 1983). Religioso, hermano de La Salle, adoptó el nombre de Valentín de Berrio-Ochoa. Académico investigador (1957). Especializado en reseñas bibliográficas y biografías. Utilizó varios seudónimos como "N de Cortazar", "Bitaño", "Markue", "Ozerin Jáuregui", "Atxarte", etc. Gran trabajador, publicó en todas las revistas de la época, utilizando palabras sencillas y versos, siendo los trabajos más importantes los publicados en "Egan". En castellano también tomó parte en varias publicaciones: "La Gran Enciclopedia Vasca", "Tradiciones populares" e Madrid, "Indice histórico Español" de Barcelona "Fábula" de Gotinga, "Boletín de la RES de Amigos del País" etc. En 1966 publicó la obra "Cien autores vascos". En 1967 se publicó "Atalak", seguidamente "Bigarren atalak" (1972) y "Hirugarren atalak" en 1978.*



Biberoko iturria

Nicolás Alzola también era pintor, trabajaba con la acuarela. Acuarelista de tendencia "fauve" bastante puntillista, llevando bien el ritmo del dibujo. Paisajes claros, alegres y anecdóticos. Los simples dibujos también muy buenos, sobre todo los árboles mostrando sus movimientos nerviosos.